

Gurasoen bukaerako ebaluazioa

2011-2012. ikasturteko txosten orokorra

GALTZAGORRI ELKARTEA
2012ko urria

Sarrera

- Txosten honetan Bularretik Mintzora egitasmoaren gurasoen bukaerako galdekizunen emaitzak aurkezten dira.
- Ebaluazioa, 2009-2010. ikasturtetik 2011-2012. ikasturtera bitartean egitasmoan parte hartu duten **5 urteko** haurren gurasoei egin zaie.
- Ekimen hau 2012ko bigarrenengo hiruhilekoan egin da.

Bukaerako galdekizunaren helburuak

- Bularretik Mintzora egitasmoaren ekimenen eragin kuantitatiboa eta kualitatiboa aztertu. Hau da, egitasmoa abian jarri zenetik, zer nolako aldaketak eman diren, gurasoen iritziz, haurren irakurketa ohituretan, hiru esparruetan: eskolan, etxean eta liburutegian.
- Bularretik Mintzora egitasmoak antolatu dituen formazio ekimenak baloratu.
- Haur Literaturako materialari dagokionez, balorazioa egin: gomendatutako liburu-ipuinak, CD-ak, foiletoak, esku orriak, ...

Galdekizunen banaketa

Herriak	Eskolak	Gurasoak	
		Bidalitako galdekizunak	Jasotako galdekizunak
Amurrio	2	42	21
Aramaio	1	17	0
Ermua	3	79	55
Iurreta	1	27	17
Markina-Xemein	2	58	34
Oñati	3	127	56
Tolosa	3	230	95
Baturak	15	580	278 (%47,9)

% 48 inguruk bete du galdekizuna

Metodologia

- Bukaerako egoera ebaluatzeko, gurasoei galdekizun bat pasa zaie. Honetan, **7 aldagai orokor** kontuan hartu dira:

1. Irakurketarekiko jarrerak

- 1.1. Irakurketa goiztiarraren garrantzia
- 1.2. Irakurketaren zergatiak

2. Kontakizunaren jarduera haurrarekin

- 2.1. Haur kankak abestu seme-alabei
- 2.2. Ipuinak kontatzearen maiztasuna
- 2.3. Kontakizunaren unea
- 2.4. Nork kontatzen duen ipuina
- 2.5. Kontakizunaren inguruko bizipenen hobekuntza

3. Narraziorako baldintzak

- 3.1. Ipuina kontatzeko estrategiak
- 3.2. Inguruko baldintzen kontrola

- 3.3. Haurraren arreta (denbora)

4. HL-ko baliabideen ezagutza maila

- 4.1. HL-ko baliabideen eresketa (liburuak)
- 4.2. HL-ko baliabideen adin egokiaren informazioa
- 4.3. HL-ri buruzko informazio bideen erabilera
- 4.4. Informazio bide motak

5. Liburuaren erabilera

- 5.1. Liburutegira joatea (maiztasuna)
- 5.2. Maileguaren erabilpena eta baliabide mota

6. BM egitasmoari esker lortu diren helburuak

7. Bularretik Mintzora materialaren balorazioa


Metodologia

- Guztira, bukaerako galdekizunak **20 galdera** ditu (mota ezberdinetakoak).
- Galdekizunak 15 ikastetxeetan banatu dira, instrukzio orriarekin batera. Epe bat eman ondoren jaso dira, datuak bildu eta estatistikoki tratatuak izan dira. Txosten honetan azaltzen diren bukaerako datuak, 2009-2010. ikasturteko hirugarren hilabetean lortu ziren *hasierako erantzunekin* konparatu dira. Ondoren, atalez-atel, aurkezten dira emaitzak.

GURASOEN EMAITZAK


IRAKURKETAREKIKO JARRERAK

Irakurketa goiztiarraren garrantzia (%)



Orain guraso gehiago dira (**%6 gehiago**) uste dutenak jaio berritik hasi behar dela irakurketa lantzen.

Irakurketaren zergatiak (%)




- Orain, **%44ak** aukeratzen du "besterik", alegia, "komunikazioa indartzeko" eta "erlaxatzeko"
- Horregatik beste "zergatiak" jaitsi egin dira

Orain guraso gehiago daude irakurketa lotzen dutenak komunikazioarekin eta lasaitasunarekin


KONTAKIZUNAREN JARDUERA HAURRAREKIN

Haur-kantak abestu seme-alabei (%)




% 58 gehiago dira orain haurrari haur kantak kantatzen dizkioten gurasoak

Ipuinak kontatzearen maiztasuna (%)




- ◆ Orain guraso gehiago dira (**%9** gehiago) "batzuetan" edo "sarritan" ipuinak kontatzen dituztenak.
- ◆ Aldiz, "egunero" kontatzen dituztenak **%8 gutxiago** dira.
- ◆ Baina kontatzearen "kalitatea" hobetu egin da; "kontatzeko baldintzak" hobetu egin dira (*Ikus 20. orria)

Ipuinak noiz kontatu (%)




- Ez da aldaketarik egon kontakizunaren uneari dagokionez
- Gurasoek jarraitzen dute ipuinaren kontaketa lokartze unearekin lotzen, nahiz eta orain **%1 gutxiago** izan

Nork kontatzen du ipuina (%)



Gehienbat, oraindik ere kontakizunaren jarduera emakumeen esku dago


Kontakizunaren bizipenen hobekuntza (%)



- ◆ **%30ak** dio, haurrarekin dituen harremanek berdintsu jarraitzen dutela
- ◆ Beste **%70ak** dio, zentzu batean edo bestean, orain haurrarekin dituen bizipenak hobetu direla. Hauetatik:
 - ◆ **%23ak** dio, haurrak errazago adierazten dituela sentimenduak
 - ◆ **%15ak** komunikazio afektiboa aberastu egin dela
 - ◆ **%31k** haurrak gehiagotan eskatzen diola ipuinak kontatzeko

NARRAZIORAKO BALDINTZAK


Ipuina kontatzeko estrategiak (%)



- Orain, **%59ak** "irudiak erakutsi eta komentatzen" ditu, lehen baino **%5 gutxiago**
- "Testua irakurtzen" dutenak **%51** dira, lehen baino **%14 gehiago**
- %17** hazi da beste estrategiak erabiltzen dituztenen portzentajea.

Ipuinaren testua gehiago irakurtzen dute, baina oraindik gutxi dira ahoz kontatzen dutenak (nahiz eta **%5 gehiago** izan)

Inguruko baldintzen kontrola (%)




- Orain, **%86ak** "isiltasuna egotea", kontrolatzen du, lehen baino **%19 gehiago**
- "Arreta erabatekoa izatea", **%94ak**, lehen baino **%10 gehiago**
- "Erlaxatua/motibaturik egotea", **%73ak**, lehen baino **%26 gehiago**

Ipuina kontatzerakoan, inguruko baldintzak gehiago kontrolatzen dituzte.

Gehien hobetu den baldintza, "erlaxaturik eta motibaturik" egotea da.

Haurraren arreta (denbora)(%)




- Orain **% 61a** 10 minutu baino gehiagoz arretaz egoten da, lehen baino **%50 gehiago** (*)
- % 31**, 5-10 minutu; lehen baino **%17 gehiago**

Hala ere, arretaz egoteko denbora, nabarmen hobetu da

(*) Emaita horiek haurraren adinarekin baldintzatuak daude (5 urte); zenbat eta adin handiagoa izan, orduan eta arreta mantentzeko ahalmen gehiago izango du haurrak.


HAUR LITERATURAKO BALIABIDEEN EZAGUTZA MAILA

HLko baliabideen erosketa (liburuak)(%)



Haur Literaturako baliabideen erosketaren maiztasunak beherantz egin du (sarri erosten dituztenak **%11** gutxiago dira)


HLko baliabideen adin egokiaren informazioa (%)



- Orain, **% 67ak** informazio "nahikoa" du, lehen baino **%26 gehiago**
- Informazio "gutxi" dutenak **%24a** dira, lehen baino **%24 gutxiago**

Gurasoek, egitasmoari esker, HL-ko baliabideen adin egokitasunari buruzko informazio maila hobetu dute


HLri buruzko informazio bideen erabilera (%)



- Orain, **%39ak** informazio bideak "nahiko" erabiltzen ditu, lehen baino **%16 gehiago**
- "Bat ere ez" dituztenak erabiltzen **%9a** Bakarrik dira, lehen baino **%17 gutxiago**

HL-ri buruzko informazio bideen erabilera hobetu den arren, erdiak baino gehiagok oraindik "gutxi" erabiltzen ditu.


HLko informazio bide motak (%)



Orain gehiago erabiltzen dituzte Haur Literaturako informazio bide "espezializatuak" (Liburutegiak, Galtzagorriko webgunea, ...)

LIBURUTEGIAREN ERABILERA


Liburutegira joatea (maiztasuna) (%)



- Orain, **%8a** bakarrik da liburutegietara inoiz joaten ez dena, lehen baino **%42 gutxiago**
- Oso maiz (*astean behin edo gehiago*) joaten den ehunekoak ere hobetu da (**%6 gehiago**, guztira)
- Hamabostean behin edo hilean behin joaten direnak, guztira, **%20 gehiago** dira

Liburutegira joatearen ohitura asko areagotu da (**%42 gehiago**)

Liburutegian maileguaren erabilpena eta baliabide mota (%)




- Orain, **%82ak** ipuinak mailegutzen ditu; lehen baino **%36 gehiago**
- %47ak**, bideoak, DVDak, joko interaktiboak, lehen baino **%10 gehiago**

Orokorrean, baliabide gehiago mailegutzen da orain, bereziki ipuin gehiago.

“Teknologia berrien” mailegua ere ugartu da.

Haur poesiaren mailegua ez da hobetu


BM egitasmoari esker lortu diren helburuak (%)



- Orokorrean, 5 arloetan **"nahiko"** aldatu da ezagutza maila
- **"Haur Literaturako baliabideak ezagutu"** eta **"komunikazio afektiboa indartu haurrarekin"** dira gehien hobetu diren arloak, Bularretik Mintzora egitasmoari esker

BULARRETIK MINTZORA MATERIALAREN BALORAZIOA


Bularretik Mintzora materialaren balorazioa (%)



- ◆ **%76ak** gomendatutako liburu-ipuina, *onak* direla dio; eta **%18ak** *oso onak*
- ◆ **%73ak** Bularretik Mintzorako CDak, sehaska kanta, poema eta Ipuina *onak* direla dio eta **%13ak** *oso onak*
- ◆ **%72ak** foiletoak, gomendioak, esku-orriak, ... *onak* direla dio; eta **% 16ak** *oso onak*


BULARRETIK MINTZORA EGITASMOAREN HEDAPENA

Egitasmoan parte hartu duten herriak




- 2008/2009. ikasturtean, **5 herri** ziren
- Orain, 2012/2013. ikasturtean, **14** dira; **%180 gehiago**

Egitasmoan parte hartu duten irakasleak



- 2008/2009. ikasturtean, **116 irakasle** ziren
- Orain, 2012/2013. ikasturtean, **330** inguru dira; **%184 gehiago**


Egitasmoan parte hartu duten ikastetxeak



- 2008/2009. ikasturtean, **16 ikastetxe** ziren
- Orain, 2012/2013. ikasturtean, **46** dira; **%187 gehiago**

Egitasmoan parte hartu duten haurrak

haurrak



- ◆ 2008/2009. ikasturtean, **2.200 haur** ziren
- ◆ Orain, 2012/2013. ikasturtean, **5.900** inguru dira; **%168 gehiago**